

# etiketak:

Irudiak ondo ez etiketatzeak izan ditzakeen ondorioak.

**Zer dira etiketak?** Interneten, batez ere irudiak, deskribatzeko erabiltzen da, baita bertan azaltzen den jendea indentifikatzeko ere.

Artikulu edo post bat idazten dugunean ere gaia etiketatu daiteke, honela jendeak interesekoak dituen gaiak identifikatuk

## 1. DINAMIKA: Argazkiei etiketak jarri sare sozialetan

<b>Norentzat:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.</li></ul>
<b>Helburuak:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>. Interneten erabilera egokia zein den erakustea.</li><li>. Errespetua erakustea</li><li>. Sare sozialetan etiketatzea</li><li>. Irudiak zaindu behar direla erakustea.</li></ul>
<b>Gaitasunak:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>. Gaitasun komunikatiboak</li><li>. Gaitasun sozialak</li></ul>
<b>Nola da jokia?</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>. Elkarrizketa</li><li>. Teknologiaren erabilera.</li><li>. Irudiekin jolastuko dugu.</li><li>. Gure mugikorrarekin</li></ul>
<b>Nola landuko ditugu etiketak?</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>. Sareko etiketei buruzko informazioa emanez.</li><li>. Irudiak zaintzeak duen garrantziaz sentsibilizatuz. . .</li></ul> Dinamika, adibideak eta bideoa erabiliz.
<b>Materiala:</b>	1. eranskina: netiketei buruzko informazioa 2. eranskina: Irudiak  Ordenagailu 1 eta interneterako konexioa. Argazkiak, folio handiak edo kartulinak. Mugikorrak. Errotulagailuak.
<b>Besteak:</b>	Emaitza, nerabeek erabilera onak ikastea sare sozialetan.

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

## Dinamikaren garapena

---

Orokorrean, nerabeek ez dute kontzientziarik sare sozialetan argazkiak etiketatzean, partekatzeaz gain, etiketatu duten pertsona horren jabetzara pasatzen direla. Eta honen eraginean, argazki hau ikusi dezaketenak ez dira bakarrik gure profileko lagunak, gehiago baizik.

Dinamika honen asmoa hori da, hain zuzen, nerabeek ikusaraztea etiketatzeak zein inplikazio duen sare sozial baten barruan eta egiten dugunean zer gertatzen den. Nerabeek irudiari garrantzi handia ematen diote eta etiketatzeo garaian ere estereotipoak / balioak transmititzen ari direla ohartu behar dute. Pertsona bat etiketatzen duten unetik argazki horren jabetza galtzen dute, beraien burua bertan irudikatzen ari badira, ez dakizu noraino iritsi daitekeen argazki hori.

## Garapena

Hasteko, bakoitzak bere mugikorrarekin bere buruari selfie bat egiteko esango diegu. Nahi duten bezala, eserita, zutik, aurpegia bakarrik, gorputz osoan,..baina bakarrik beren buruari, lagunik gabe! Ondoren, bakoitzak bere mugikorrean gordeko du argazkia. Eta ikusiko dugu noiz erabiliko dugun! (nahi baduzue, lan fitxa honekin egin, baina saioaren hasieran ere egin dezakezue. Eta beste lan-fitxa batzuk lantzen hasi. Horrela, denbora luzeagoz bada, ahaztuta izango dute irudia egin dutela, eta eragina handiagoa izan daiteke).

Dinamika hau talde osoarekin egingo dugu. Denek batera parte har dezaten. Argazki bakoitza paper handi batean jarriko dugu, argazkiaren ondoan idazteko lekua izan dezagun (hezitzaileok edo nerabeek). Lau argazki-talde dira, aretoaren inguruan jarriko ditugu sakabanatuta. Nerabeak talde handian egongo dira, lurrean eserita edo aulkietan (ohituta zaudeten bezala).

1. argazkiarekin hasiko gara. Eskatuko diegu argazki bakoitzak esaten diena adierazteko (esaten badute, guk idatziko dugu) edo beraiek idazteko bertan. Baina idazteko unean etiketatuta jarriko dugu/dute, hau da, traola bat izango du. Adibidez: #polita #pozik #nekatuta #mutila #bikotea #lagunak

Galdera batzuk botako dizkiegu, ziztatzeako:

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

- Zer ikusten duzue argazki honetan? (ateratzen diren ideiak idatzi, zuek edo beraiek) bikotea, kirola, mutilak ala neskak...
- Nola daude argazki honetan? Pozik, triste, itxura txarrez, alai, sexy...

Argazkiak ordena batean etiketatuko ditugu, argazki bakoitzari dagokion denbora eskainiz.

1. argazkia
2. argazkia
3. argazkia
4. argazkia

Ahal baduzue, dinamizatzeko garaian ere lagundu eta probokatu diezaiekezue. Ikusten dutena bikote bat dela uste al dute? Zein sexutakoa? Edo nongoa? (hau, ezer esatera ausartzen ez badira).

Argazki guztiekin egingo dugu hori. Argazki bakoitzean esaten dutenarekin etiketatzen joango gara: #jarriko diegu. Denak egin ditugunean, banaka-banaka argazki bakoitza zer den argituko dugu. Argazki bakoitzaren ondoan jartzen joango gara, eta komentatuko ditugu. Ea zer jarri duten eta zer den.

Behin argituta, galdera batzuk egingo dizkiegu:

- Zer iruditu zaizue? Etiketa egokiak jarri ditugu? Bat datoz argazkiarekin?
- Irudi bat nahikoa da dena azaltzeko?
- Etiketak ondo erabiltzen ditugu?

Azaldu behar diegu, adibidez facebooken horrelako argazki batean gure lagun bat badago eta etiketa desegoki bat jartzen badiogu/digu, ea gustatuko litzaiguen lagunak ikustea, kontuz ibili behar direla nola etiketatzen duten edo nor.

Ondoren, bakoitzak hasieran atera duen argazkia erakusteko eskatuko diegu. Beren buruari etiketak jartzeko esango diegu. Aipatu ditugun etiketa asko sare sozialetan topatzen dira. Gustatuko al litzaieke beren lagunak ikustea? Kontuz ibili behar dugu zer eta nola etiketatzen dugun .

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

Gomendioak eman:

- Ez iraindu inor sarean.
- Iruzkina bidali baino lehen, berrikusi.
- Besteek jakitea gustatuko litzazukeen zerbait interesgarria esan nahi baduzu, ez izan beldurrik; Sarearen helburua, azken finean, norberak dakiena partekatzea eta elkarri laguntzea da.
- Argazki batean lagun bat etiketatu baino lehen, baimena eskatu.
- Kontuan eduki behar dugu beste aldean ere pertsona bat dagoela. Errespetua eta begirunea izan behar dugu zerbait komunikatzeko garaian.
- Kontuz umorearekin eta sarkasmoarekin, hitz asko gaizki ulertu baitaitezke. Ziurtatu ezazu umorea ondo erabiltzen ari zarela, bestela, emotikonoak erabili.

Hona hemen bideo batzuk irudien eta etiketen kontuarekin, dinamika bukatu ondoren ikusteko.

<https://www.youtube.com/watch?v=E3Z6f-KIIQI&list=PLA6C9ADBEC087B636>

<https://www.youtube.com/watch?v=LD70Q41bbqU&list=PLA6C9ADBEC087B636&inde>

## Nola ebaluatu?

---

Galderei emandako erantzunen bitartez, konturatu gaitzke ea ulertu duten, sentsibilizatu diren eta gaitasunak lortu al dituzten.

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

## 1. eranskina INFORMAZIOA

### Zer dira etiketak?

“Internet plaza bat da”. Horregatik, ezinbestekoa da Interneten ere ondo portatzea, gure jarduerak inor ez mintzeko. Pertsona bat etiketatzen dugun unetik baimena eskatu behar zaio, etiketatzen dugun unetik sarean gehiago zabalduko baita pertsona horren irudi edo profil hori.

- Ez iraindu inor sarean.
- Iruzkina bidali baino lehen, berrikusi.
- Besteek jakitea gustatuko litzaizukeen gauza interesgarririk esan nahi baduzu, ez izan beldurrik. Sarearen helburua, azken finean, norberak dakiena partekatzea eta elkarri laguntzea da.
- Kontuan eduki behar dugu beste aldean ere pertsona bat dagoela. Errespetua eta begirunea izan behar dugu zerbait komunikatzeko garaian.
- Kontuz umorearekin eta sarkasmoarekin. Hitz asko gaizki ulertu baitaitezke. Ziurtatu ezazu umorea ondo erabiltzen ari zarela, bestela, emotikonoak erabili.

Bestalde, **netiketak** ditugu, sarean bete behar diren legeak dira, sarean besteak ez molestatzeko gomendio-bilduma. Etiketak egoki erabiltzeko arauak banatuko dizkiegu. 3. eranskina

[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

## 2. eranskina DIMANIKARAKO FITXA

### 1. ADIBIDEAK



### 1. SOLUZIOAK



[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

**KULTURA  
DIGITAL@** | erabilera ona  
eta sorkuntza

[kulturadigitala.eus](http://kulturadigitala.eus)

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



**ORAIN  
GAZTEAK**

## 2. ADIBIDEA

## 2 SOLUZIOA



[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)

**KULTURA  
DIGITAL@** | erabilera ona  
eta sorkuntza

[kulturadigitala.eus](http://kulturadigitala.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



**ORAIN  
GAZTEAK**

### 3 ADIBIDEA



### SOLUZIOA



[gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus)